

GORA LEKITTO!

EZKERRETIK ETA KOLORETSU



ALE HONETAN...

- >** Arantza Zulueta
elkarrizketa
Oraingo honetan oso baldintza gogorretan eduki naute> 03. or.
- >** Gure esku dago balantzea
Maiatzak 7ko emaitza bikainen ostean, zer dator? 04-05. or.
- >** Ernai erreportajea
Garaipenaren belaundaldia gara! 06. or.
- >** LAB erreportajea
LAB 4.0. Gure garaia da 06. or.
- >** Ainhoa Lopez elkarrizketa
Lekittoko EH Bilduko zinegotziarekin berbetan. 07. or.
- >** Iñaki Leniz Iñaki Goikoetxea
Galarrenako egitaraua bero-bero dator. 08. or.

Azken hileotan buru belarri egon gara orain artekoa baloratzen, aurrera begirako asmatzen... Nagjak bota, nostalgiaz izan nahi dogun harremana findu eta aurrez aurre daukagunari neurria ondo hartzeko betaurrekoak graduatuta gatoz. Begiak zabal-zabalik eta ernal!

Bagatoz ekiteko, eragiteko! Hangok, bestekok, halakok eta bestelakok osatzen dogun GU zabal hori eraginkor bilakatzeko. Edo, gitxienez, horretan geure ekarpen zintzoena egiteko. Horretarako, aldizkaritxu hau be, tarteka-marteka zeuen eskue-tara helduko dana.

Editorial honetan berritasun haizeak dituen testuinguruari bota nahi deusgatu begiratu. Ze ezin ukatu berrikuntzak edo aldaketak... egon badagozela. Esangura-tsuak, gainera! Begiratu bestela Baiona Ttipiral!

2017ko apirilaren 8a. Kalia jendez beteta. Pixkat urdui egon arren aurpegiak alai Bake Artisauen barri noiz izango zain, baina irribarre txikien atzian sentimendu nahasiak. Hamarkada luzietako bizipenak geratzen dira atzian. Bizipen gogorrak, baina baita ederrak be... Pentsa baino herritar gehiagok zuzenian bizi izan ditue-nak... Sentimenduz blai dira Baiona Ttipian elkartu dirazen pertsona askoren begi-radak... Eta begirada horietan ezkututzen dan guztia herri honen memoriak jaso beharko dau.

Baina iraganak zeoztarako balio behar badau aurrera begiratzeko da. Guri, orain, aurrera egitea dagokigu. Askatasunaren bidean orain arte egindako ibilbidetik hurrengo estadiora pasatzeko prestatzea.

Hain zuzen, ahalegin horretan dabil Ezker Abertzalia azkan hiletan. Abian Proze-suan (ekainean amaitu zan) Ezker Abertzale osuak estrategia berria definitu ostian, orain, Ezker Abertzalia osatzen daben erakundietako bakoitza dabil lan horretan estrategia berritura egokitzeko ahaleginian. Urte honetan izan dira Sortuko, Ernaiko eta LABeko kongresuak. Eta Euskal Preso Politikoen kolektiboak be datozen hile-tan ezagutaraziko ditu egin berri duen eztabaida prozesuaren ondorioak. Beraz, eltxeko lanak eginda, lehentasunak identifikatuta eta tresneria prest izango dogu laster batean.

Marraztu dogu 8 erpinetako izar koloretsua. Herri honentzat desio dogun etorkizu-naren modukoa: libre, sozialista, feminista, euskalduna, anitza, solidarioa... alai! Kolore bakoitzak bere aldera teinkatu nahi dabeta emoten dau. Holan bedil lxxas-izarrek esku bat galtzen dabenian moduan handik izar barri bat ateratzeko, edo mila izartxo barril!

Edo bestela, metaforakin gabiltzala, izan daitela gure izarra behin zerutik pasatzen ikusi genuan izar-iheskorra. Eta atzean ubera luzea marraztu daiela, ostadarra modukoa. Eta imaginatzen imaginatzen... ostadar itxurako ubera horrek bota ditza-la koloretako izartxoak zuhaitz eta lore koloretsuz betetzeko Euskal Udaberriko zelaiak. Pasa daitela izar-iheskorra Cadizko Puerto espetxetik be, eta Pototo geure arteral!

2017ko udaberria eskola liburuetan idatzita geratuko da. Baina jakitun gara herri honetara benetako udaberria ez dala berez etorriko. Lehenengo imaginatetik hasten da, ta ibilian ibilian... Euskal Udaberria ekarriko dogu! Hurrengo hitzordua uztailaren lean.

KALERA KALERA

KALERA KALERA DINAMIKAREN SORRERA

Preso, iheslari eta deportatuen aldeko aldarria barriro be kalearen erdigunera ateratzeko dator Kalera Kalera dinamika. Preso ohietatik sortutako dinamika hau Ezker Abertzale osoak bere gain hartu dau, eta ekimen askotarikoz, zabalez eta koloretsuz ezaugarrituko da. Preso, iheslari eta deportatu guztiak etxeratu arte euri babes asistentzial eta politikoa emotea bere egitekoen artean izango dau. Hau da, azkan 40 urteetan amnistiaaren aldeko mugimenduak egin-dako bideari segida emotea dator Kalera Kalera.

Baina presoaren aldeko dinamikan protagonista nagusia Ezker Aber-tzaleaz harantzago gizarte zabala izan behar da. Gatazkaren ondorioen konponbideak Bake Artisau asko behar ditu: presoaren arrazoi politikoekin bat egiten dabenak eta egiten ez dabenak be bai. Hori dela eta, Sare, Etxerat, Foro Soziala edo antzeko dinamiketan be apustu egiten dogu eta euretan parte hartzeko deia luzatu herritar guztiei.

UDARAKO PLANAK...

Uztailak 20-27: Uda honetan Gernikatik hasi eta Sakanan amaituko dan Ibilaldia egingo da. Lekitora uztailaren 20an heldu eta 21ean ekingo deutso Ondarrurantz. Jendez, indarrez eta animoz beteko doguz Lekittoko kaleak Euskal Preso, iheslari eta deportatuen etxe-ratzea ozen aldarrikatzeko. Uztailaren 30ean HatortxuRock berezia ospatuko da Lakuntzan, kontzertu eta martxa itzelagaz!



Udia: Udako jaiak zein San Antolinak be bete daiguzan Preso, iheslari eta deportatuak etxeratzearen aldeko aldarrikapenez. Kalia irabaztera goiaz! Gatazkiaren ondorioen konponbidiak, BakeArtisau asko bihar ditu. Ia ba, horrengana guztiengana heltzen garen.



Arantza Zulueta elkarrizketa

Arantza Zulueta Amutxastegi 2014ko urtarrilaren 8an atxilotu eben EPPK-ren bitartekaritza taldearen kontra egindako polizia operazio bati. Orduetik, isolamendu egoeran eduki dabe. Lehenengo Estremerako kartzelan, eta ondoren, Cadizeraino urrundu eben, Puerto III espetxera, Euskal Herritik 1000 kilometrorra baino gehiagora. Otsailaren 25ean urten zan espetxetik: fidantzapean eta epaiketaren zain.



2014tik oraintxurarte kartzelan eduki zaitue. 4. aldia izan da atxilotu zaituztena. Eta honetan 3 urte baino gehiago isolatuta, bakartuta, Cadiz puntan dispertsatuta... izan zaitue. Zure kontrako mendeku gosea?

Argi dago Gobernu espainolak apustu errepre-sioa egin duela euskal preso eta errepresaliatu politikoen kontra. Argi dago estatuak zapuztu egin nahi duela gatazkaren konponbidean ezker aber-tzaleak ireki eta eraikitako bidea, horretarako, Euskal presoak bahitu gisa erabiltu. Horren harira euskal preso politikoen alde edozein esparrutan borrokatzen duen oro kriminalizatzen du, atxilotu eta espetxeratu presoaren aldeko elkar-tasuna, presoek dituzten eskubideak urratuta. Abokatuak, medikuak, Etxerateko kideak, bitarte-kariak presoaren aferan irtenbide politiko ta demokratikoan sakontzen ari ginenean...

Lau aldiz izan naiz atxilotua, guztietan beste abokatu batzuekin batera. Atxiloteta denetan salatu dugu abokatuen kontrako eraso zuzena baino defentsa eskubidea urratzeko asmoz presoaren kontra egindako erasoak izan direla. Oso garai desberdinetan izan naiz atxilotua eta espetxeratu, eta horrek ere ondo adierazten du zein izan den kolore desberdinetako espainol gobernuen apustu errepresioa euskal herrira begira. Haien praktika errepresioak eta lotsagari-riak salatzen dituen orok errepresioa jasan izan du: beti izan gara abokatuak deserosoak gober-nuarentzat.

Argi dago politikak kriminal horren azpian mende-kua dagoela. Baina mendekua ez da pertsonala, bere askatasunagatik borrokatzen duen herri baten kontrako baizik. Politika kriminala bahituta dituzten euskal militanten kontra zuzentzen dute. Independentziaren bidea oztopatu nahi dute eta horretarako edozer egiteko prest daude.

Mugimendu handia izan da urteotan zure isolamendu egoera salatzeko. Baina zer da kartzelan isolatuta egotea?

Oraingo honetan oso baldintza gogorretan eduki naute. Beraien tresna errepresio nagusi eta krudelenetarioak ezarri dizkidate: isolamendua, bakardadea eta sakabanaketa. Euskal Herritik 2.000 kilometrorra, bakar-bakarrik inolako harre-manik gabe, denbora luzean berba apurrak funtzionarioekin bakarrik egiten izan ditut. Gainera isolamendu moduloak tentsio handiko moduloak dira. Oso neurri zorrotzak ezartzen zaizkie presoek, dena dago mugatua, liburuak, arropak, garbitzeko tresnak, erosketak... Moduloa behe solairu bat izaten da, "txaboloak" (ziegak) ere bereziak, "txaboloko" lehiok patio txiki eta itxi batera ematen dute eta burdin-sareaz estalita daude, ez da ia argirik sartzen, ez dago eguzkia ikusteko modurik. Patioek ere sabaia burdin sare estalirik dituzte eta, gainera, oso neurri txiki patioak dira. Ukimenezko gorputz miaketak txabolotik ateratzen zaituzten bakoitzean egiten dizkizute, nahiz eta hiru pausora dagoen patio txiki batera ateratzeko izan. Eta "txabolo" miaketak ere egun batean bai, bestean ere bai egiten dituzte, ta "txaboloa" beti hankaz gora utzi.

Gainera isolamendua gizonen moduloa da eta emakumeekiko errepresioa bikoiztu egiten da. Isolamenduko moduloetan jipoiak eta zigor fisikoak eguneroko kontuak dira nahiz eta nire kasuan zorte handia izan dudan horretan. Esan dezaket baldintza orokorretatik kanpo funtziona-rioren partetik jasandako tratua errespetu handiko tratua izan dela.

< Oraingo honetan oso bal-dintza gogorretan eduki naute. Beraien tresna errepresio nagusi eta krudelenetarioak ezarri dizkidate >

Zigor estra horrek, apurka-apurka barruan dana-ren zein bere inguruko higidura eta nekia eragingo ditu ba. Zelan bizitzen da?

Espetxea oso gogorra da, mespretxua, amorrua, errepresioa... bere forma gordinetan ezagutzen dituzu bertan. Gainera, isolamenduko moduloak presoak suntsitzeko eginak daude. Egoera hau gainditzea familia eta lagun maitasun eta babes barik ezinezkoa litzateke. Nire kasuan ere oso inportanteak izan dira euskal preso politikoen aldeki jasotako elkartasuna eta animoak. Isolamendua apurtzeko orduan kriston garrantzia du kolektiboko partaideak zaitela eta ez zaudela bakarrik sentitzea. Berezi ki Puerto III-ko presoek aurrera eramandako borrokek garrantzi handia izan dute niretzat. Hemendik eskertu nahiko nieke elkartasuna helarazi didaten euskal herritar guztiei, batzuetan gutunen bidez besteetan nire familia besarkatuz eta babestuz... askatasunagatik borrokatzen duen herri baten partaide naizela sentiarazteagatik une oro.

Baina kanpotik izan dozun babes dinamika aktiboaren lekuko gara Lekittarroko. Barrote artian sentidu dozu zure kuadrilak eta beste asko mugiduarazitako olatuen brisa freskorik?

Barruan zaudela oso inportantea da jakitea kalean zure egoera salatzen eta zure kaleratzea eskatzen ari den mugimendua dagoela. Abokatek salake-tak sartu dituztela, plataforma sortu dela, "Aran-tzaren lagunak" antolatuta direla, Bilbok eta Lekittok bat egiten dutela zure alde aritzeko, mozioak, manifik... Familia ere indartsuago ikusten duzu, ilusioaz. Inpotentzia gainditzeko lagundu eta indartu egiten zaitu, animatu, ilusio-natu egunerokoari aurre egiteko.

Gainera, nire kasuan lortu daitekela erakutsi duzue. Mugimendu hori gabe ez nintzateke kalean egongo, ezta isolamendu egoera gaindituko ere. Hartu beharreko olatua hori, denok animatu behar gaitu borrokan jarraitzeko, denon artean posiblea dela sinisteko, konturatzeko denok daukagula zerbait egiteko presoaren alde eta denok garela beharrezkoak.

Isolamendutik lehenbailehen atera behar ditugu denon artean.

Helduko al zaitu brisa fresko hori isolatuta dagozen gainontzeko preso politikoei...

Argi dago, ezker abertzaleak oso pausu inportan-teak eman dituela: Abian prozesua, Euskal Herria Bildun egin berria den eztabaida, Kalera Kalera... Euskal Preso Politikoen kolektiboa eta Iheslarien Kolektiboak ere ezker abertzaleekin batera oso pausu inportanteak eman dituzte gatazkaren konponbidearen bidean ezker abertzalearen estra-tegiarekin bat eginda Euskal Herriaren askapen prozesuaren alde. Ezker abertzalea abian dago. Euskal herria martxan dago eta horrek indarra eman behar digu aurrera jotzeko. Baina oraindik lan asko daukagu egiteko: Sakabanaketarekin bukatu, Lege antiterroristarekin bukatu, preso gaixoak kaleratu... Denon esku dago!

Argi dago Gobernu espainolak ez duela onartu nahi herri honetan gatazka politiko bat dagoenik, eta esparru juridikora eraman nahi du gatazka kriminalizazio politikoa mantenduta. Bahitu polti-koen eta bere familien kontrako politika errepre-sioa eta krudela mantentzen du estatuak herri honek independentziaren alde egindako apustu geldiezin oztopatzeko asmoarekin. Baina gero eta zailago egiten ari zaio ezker abertzalearen posizioari esker. Aurrera egin behar dugu independentziaren bidean Gobernu espainolaren politika ankerra, demokrazia eza eta inpunitatea azalarazita.

Errepresaliatu guztiak etxera ekarri arte ezin dugu etsi. Denon artean lortuko dugul gure esku dago!

< Argi dago estatuak zapuztu egin nahi duela gatazkaren konponbidean ezker abertzaleak ireki eta eraikitako bidea, horretarako, Euskal presoak bahitu gisa erabiltu. >

< Aurrera egin behar dugu independentziaren bidean Gobernu espainolaren politika ankerra, demokrazia eza eta inpunitatea azalarazita. Erre-presaliatu guztiak etxera ekarri arte ezin dugu etsi. Denon artean lortuko dugul gure esku dago! >



M7

Lekitto:
Parte hartzea %44.3
Baiezkoak 2.711

Lea Artibai
Parte hartzea % 41.6
Baiezkoak 8.716

➤ Zorionak Lekitto! Aurrera begira zer?

Zorionak Lekitto! Zorionak M7ko Herri Kontsulta antolatzen ibili zinen guztioi. Bikaina izan da egindako lana. %44,3ko parte hartzea! Katalunian hasiera-hasierako Herri Kontsultetan %20tik beherakoa izan zan parte-hartzea, begiratu orain nora heldu diren.

Hamendik aurrera zer? Ba, guk hau prozesu soberanistaren hasiera moduan-edo ikusten dogu. Baina zeintzuk uste dogu direla prozesu soberanista bat aurrera eroateko gakoak?

Klabe nagusia herrian dago, gizarte zibilaren aktibazioan. Herri aldarrikapenak bakarrik eduki leike nahiko indar honetan interesatuta ez dagoen alderdiak mugiduarazteko eta interesa dauken alderdiei be oztopoen aurrean bultzabemateko. Eta zelan ez erabakitze eskubidiaren aldeko herritarrek 200 mila izatetik 2 milioi edo gehiago izatera pasatzeko.

Baina horretaz aparte, sindikatu abertzaleen inplikazioa eta alderdi politiko abertzaleen batera-jotzia be oso garrantzitsuak dira. Azken hileotan, zorionez, LAB eta ELAren arteko mugimenduak ikusten dira. Ostera, alderdiak... Alderdietaz ezin bardina esan. Zertara dator bestela PNV-k PPGaz egin daben akordioa aurrekontuen eta kupoaren inguruan? PPrentzat lasaitasun keinua eta herritarrentzat prozesu soberanista baten "abenturan" sartzeko asmorik ez daukanaren mezu argia.

leer inplikazioa eta alderdi politiko abertzaleen batera-jotzia be oso garrantzitsuak dira. Azken hileotan, zorionez, LAB eta ELAren arteko mugimenduak ikusten dira. Ostera, alderdiak... Alderdietaz ezin bardina esan. Zertara dator bestela PNV-k PPGaz egin daben akordioa aurrekontuen eta kupoaren inguruan? PPrentzat lasaitasun keinua eta herritarrentzat prozesu soberanista baten "abenturan" sartzeko asmorik ez daukanaren mezu argia.

Kontuak kontu, herritarrek daukela herri honen etorkizunaren giltza. Segi daigun ba, amesten dogun Euskal Herri berri hori ezaugarritzen, koloreztatzen, estankatutako pentsamoldeak mugiduarazten eta estatu hobeto bat eraikitze-ko ilusioa biztuten. Eskozian badoaz 2018an barriro herriari galdetzeraz: Katalunian be oztopuak oztopo urriaren lian erreferendum. Gure momentua be helduko da!

zuk zer diñozu?

- 01> Zeintzuk dira klabeak prozesu independentista bat aurrera eramateko?
- 02> Zertan daukagu hobetu beharra?
- 03> Zertarako nahi dozu euskal estatua lekittar modura?




➤ Tetxu Meabe Derteano

01> Herritarren ahalduntzea. Sinistu behar dogu herri honen patua geu guztion eskuetan dagoela. Komunitate bat osatzen dogula, herri bat garela eta bagarela nor geure herri hau gobernatzeko. Ezin dosku aukera honek ihes egin.

02> Herritarrekin zuzeneko hartu-eremona: jendiagaz egon, entzun, kezak konpartidu, eta Euskal Herrian dan-danok ahalik eta onduen bizitzeko herri honek behar daben proiektuetaz pentsatu... Zelan ez, pentsaten dogun hori egi bihurtzeko.

03> Sinistarazten deuskue herritarrok hemen ezin dogula ezer aldatu. Baina guzurra da. Gutako bakoitzak herri honeri gure ekarpenxua egiten deusagu. herri hau moldatzen dogu, gutako bakoitzak osatzen dogu herri hau. Eta herri txiki honetatik mundua moldatzeko, eraldatzeko indarra daukagu. Injustiziaz beteta dagoen mundu honetan, geu be ez gara salbu. Injustizia horrerri aurre egiteko behar dogu estatua, herritarrok behar doguna zer dan bertotik bertora erabakitzeko.



➤ Kontxi Txopitea.

01> Ba nire ustez gure herrian, herritarren artean, kontzientzia zabaldu behar da halako prozesuari eusteko. Gizarte zibilean sortu behar da mugimendua.

02> Ba Euskal Estatuaren aldeko ilusioa sektore gehiagorena izateko estrategiak modu kolektiboan bilatu behar doguz.

03> Gure herritarren beharri erantzuteko. Eskaintza barrituak eukitzeko bai lanean, etxebizitzan, elikaduran, energian, babes sozialean, hezkuntzan, osasungintzan eta abar luzean.



➤ Agurtzane Elordi

01> Nik bi aitxatuko nituzke, gizartiak bultzatutako prozesu bat izan dala, eta herritxarron nahi edota beharriazetik jaiio behar dala.

02> Gizartian, herritxarron artian ilusioa piztu behar dala uste dot. Sinistu egin behar dogu posible dala prozesu independentista bat danon artian eraikitzea.

03> Lekittori dagokiona, lekittarrok erabaki ahal izateko, inongo injerentzi barik (azpiegitura, turismo, kultura, garapena...)



➤ Gotzon Atxurra

01> Nire ustez herri baten independentzia lortzeko, herria, herritarrok eta guztion elkarlana dira klabeak.

02> Toki guztietan modura, gurea be sentsibilitate desberdineko jentez osaturiko herri bat da: ezkertiarak, anarkistak, eskuindarrak, langile mundua, emakume mugimenduak eta abar. Argi dago bakoitzak bere erlito eta estrategia daroala eta bakoitzak bere kontuak atera ditzala, baina gu gure artean, euskaldunok konpontzen eta adosten ez dugun bitartean ezin izango dogu pausu garrantzitsu hau aurrera atera. Are gehiago, atzerritik datozen familiak ez baditugu gurean integrotzen eta gurea maitatzen erakusten jai daukagu! Mundu globalizatzaile honek irentsi egingo gaitu eta akabo nortasunak, euskara eta ditugun altxor guztiak.

03> Nire nortasuna, baloreak, herri eredu, hizkuntza eta abar zainduko dituen estatu baten parte izan nahi dudalako. Honetatik aparte, ez nator bat gaur egungo munduaren funtzionamendurekin: kapitalismoa kantzer bat da, harrapatuta eta gustora gaituen droga bat, mundua desegingo duen gaixotasuna... Uste dot estatu euskaldun batek, mundua aldatzeko gai izan ez arren, bere eredu politiko, sozial, ekonomiko jasagarri eta libre bat kudeatzeko gaitasuna izango dabela.



UZTAILAREN 1EAN
19:30ean poteo koloretsua Galarrenatik
21:00etan ekitaldia Plaza Merkauan
Ondoren, afaria

animaten zara?



"Garaipenaren belaunaldia gara"

Ernai gazte antolakundiak lau urte bete barri, "Inurritegia" prozesua burutu barri dau aurtengo ikasturtian. Inurritegia da prozesuari ipini dien izena eta Zirtaka" eztabaidagai izan daben txostenarena. "Garaipenaren belaunaldia gara" lempian ospatu dabe prozesu amaierako kongresua.

> Bestetik, gazte estrategia berregokitzea ondo egindakoak eta akatsak aztertuta.
> Antolakuntza eta funtzionamenduan eraginkortzea. Funtzionamendu feministarantz barne mailako erabakiak hartu, horizontaltasuna elikatu eta planteamendu integratut egiteko gaitasunian sakondu.

Ezker Abertzaliaren Abian eztabaida oinarri hartuta, gazte arazoak erdigunean ipini eta alternatiben bidez borrokatzearen aldeko apustua egiten dabe, euskal sozialismoa gaurdanik eraikitzea helburu. Prozesuak 3 helburu nagusi izan ditu:

Amaitzeko Ipar Euskal Herriko Aitzina gazte antolakundiaz harremanak sendotu eta estrategia konpartitu baten aldeko apustua egiten dabe.

Ezker Abertzalearen Abian prozesuan ateratakoari helduta prozesu independentista bat martxan ipintzea da erronka, eta Ernaik bere egiten dau horren lanketa gazte- mailan egiteko ardura. Euskal Herri Independentea, sozialista eta feminista ipar.

> Ezker Abertzale mailan emondako Abian prozesuaren ondorioak gazte antolakundearen implementatzea. Askapen prozesuaren birtute nagusia historikoki be hori izan da, erakunde ezberdinen arteko koheretia.



Lekittoko txinurrijak be martxan

⬆ Ezker Abertzaleko gazte antolakunde desberdinetan militatu daben kidiakin kafe tertulia bat egin eben eta gustora ibili ziren esperientzi desberdinen arteko elkar trukean. Zergatik hasi militatzen? Zer emon dotzu gazte militantzijak bixijan?

Bertso afaria be egin zan, udaberriko "Gazte Akelarrea" topagunearen aurkezpena egiteko.



EH BILDU

Ainhoa Lopez Eiguren Lekeitioko EH Bilduko zinegotzia

EH Bilduk Kongresua ospatu berri dau. Zertan datza garai berriak?

Sekula baino indartsuago gatoz, aniztasuneko espazioak zabaldu ditugu. EH Bildu, koalizioa sortu zuten eta osatzen duten alderdiez bestelako espazio politiko moduan sendotu da, eta alderdi horien batura baino gauza zabalagoa da. Horregatik, salto egin nahi dogu eta lau indar politikoren koalizioa izatetik ideia eta proiektu barriak eta alderdi jakin bati lotuta egon behar izango ez dabenak ekarriko dabezen pertsona eta sektore independentiak be barnian hartzen dabezen subjektu politikua izatera igaro nahi dogu. Mota honetako ariketak konplejuak dira. EAgaz egondako gatazkak horren erakusle dira. Baina gatazkia mugimenduen parte da, eta konponbidiak beti indartzen dau mugimendua. Irabazteko estrategia egin dogu. Bestalde, egia da zuzendaritzan emakumion presentzia urria dala eta polemika izan dala, baina argi dago aldatzea emakumiok ekarri bihar dogula eta horretan ekingo dogu.

Lekitton be handira jotzeko asmoa dago EH Bildutik...

Bai, argi daukagu geu garela alternatibia. Herriari lotutako alderdia geu gara. Herriarrangandik hurbil egon nahi dogu, euren biharrizanak entzun eta bideratzeko. Lekittarrak, pertsonak, kokatzen doguz gure proiektuaren erdigunian eta ez interes merkantilistak. Guk herri osuaren garapena nahi dogu eta ez gitxi batzuenara.

Aurreko legegintzaldia gogorra izan zan aspektu guztietan. Zer balantze egiten dozu?

Guzurrik ez dogu esango, gogorra izan zan. Zortzi urte udaletik kanpo egon ostian zerotik hasi bihar izan ginen, udala saneatu eta

herriarrei zabalduz. Ezin dogu ahaztu ezta be Abaroa eta gaztetxiaren gaia. Baina, akatsetatik ikasi egin bihar da, berriro ez erreplikatzeko. Bestalde, nahiz eta PNvk behin eta berriro gure kudeaketa gixxietsi eta salatu eban, zeozer ondo egin behar izan genuan. Izan be, gaurko udala egiten ari dan ekintzen gehiengoa guk hasita edo markatuta utzitako ekintzak dira. Azken urteetan asko ikasi dogu eta badakigu irabazteko formula zein dan: Herriagaz lan egin eta handira jotzea!

EH Bilduko zinegotzia, baina baita herrian eragile be...

Bai, Gu, herriarrek gara eta herrian eragiten dogu. Ez dogu instituzioetatik bakarrik lan egingo. Ezinezkoa da. Instituzioetan gagoz, herria egiten segitzeko. Horregatik, EH Bilduko kide bakoitza beste mila gunetan dabil eragiten beti. Ni emakumeen kirolean, Andoni euskalgintzan edo prozesu independentistan buru belarri, Miren Tere emakumearen eta gizarte gaien esparruan, Xabi kultur garapenean... Izan be, gu hori gara! Gu kalea gara!

Beraz, zein da Lekittorako daukagun estrategia?

Ez dogu Lekitto postal bihurtu nahi, berton lan eta bizitza posible dala uste dogu. Lekittok mugimendu eta ekimen kultural ugari ditu, herri honen garapenaren giltzarri izan leikezenak. Baina ez hori bakarrik, eskualdeko perspektiba izatea beharrezkoa da. Baliabide naturaletan aberatsa dan eskualde txikia gara. Aldundiaren estrategia eta planteamenduetatik kanpo geratzen dan eskualdea eta ondorioz, beharrezkoa da guztion artian estrategia bateratu bat lantzea. EH Bildun horretan gabiltza.



Kongresua

Bost urteko ibilbidea egin ondoren, alderdi subiranista eta aurrerakoen aliantza politiko-instituzionala barriro definitzeko eta, ondorioz, indartzeko garaia da. Behetik eta ezkerretik erakuntza nazionala eta gizarte-eraldaketa lortzeko tresna izango dena.



Abaroa gunea

Aurreko legegintzaldian ondare izendatzea lortu zan, eta horrek, besteak beste esan nahi dau, espazio hori herriarentzako ekipamendu moduan erabili behar dala. Pribatizatu eta goi mailako hotel bihurtzeko proiektuak geldiarazita.



Parte hartze ordenantza

Herri mugimendutik sortu zan, Lekitto Bixirik plataformaren herriarren parte hartzerako protokolutik. Hor hasita landu dan ordenantza honek udal garden eta parte hartzaileago bat errazteko edo herri ekimenez kontsultak eskatu eta bideratzeko prozedura eta arauak ezartzen ditu.



Hondakinak

Mankomunitateko herri guztien artean bilketa eredu bat adostea lortu da. Horrier esker, materia organiko guztia batzeko aukera egongo da eta ez bakarrik begetala, Aldundiak planteatzen duen bezala.



LAB

IX. Kongresuan LABek prozesu soberanista azeleratzeko apustua egin dau

LAB sindikatuak IX. Biltzar Nagusia burutu dau ekainian, hilabetietako eztabaidaren ondoren. Beraz, Ainhoa Etxaidek orain 9 urte Rafa Diezen eskutik jasota testigua Garbiñe Aranbururi pasa dio, berau da datozen urteetarako LABeko Idazkari Nagusia.

Hurrengo urteetara begirako honetan prozesu soberanista bat aurrera eroan behar dala, soberania ezinbestekoa dogulako aldatzea dirazela, langilegoaren aktibazioa soziala gerta dadin. Horretarako, sindikatu abertzale nagusien artian sortu biharreko aliantzez aritu dira. Antolakuntzan be berrikuntzak: Oinarrian irizpide feminista.



GALARRENA

Abuztura arte, Galarrenako egitaraua bero-bero

Aurten be ekimen mordo bat antolatu dira Galarrenan "Hamaika kolore, hamaika borroka, zoriotsu izateko"; izaera ezberdineko ekimenak publiko ezberdinarentzat. Pala txapelketa, ajedreza, hitzaldiak, kontzertuak, umientzako ipuin kontalaria... Iñaki Leniz eta Iñaki Goikoetxea, antolatzaileetako bi, elkarrizketatu doguz.

Aurten danok koloretsu eta alai...

IL-Ta hori hasarratuta egoteko motiborik ez jakula falta. Koloretsu ta alai bai, baina aldarrikapenez beteta, harrotasunez eta konbentsiduta aurrera.

Arantza Zulueta be bai...

IG-Ez dao dudarik. Galarrenan argazki bat gitxiago eta kalia kolore tanta bat gehiago. Gu beste guztien zain.

Eta ajedrez txapelketan nor alaien?

IL-Irabazlia seguruenik... Kolore askotako jentia batu zan ajedrezian giro ezin hobian. Ta gure marinela (Txiki) be pozik eongo zan bere omenezko txapelketa honetan, seguru.

Ipuin kontalariak ze truko ume guztiak isilik eta adi izateko?

IG-Ez dakigu baina lortu eban Galarrena ganian batutako ume mordu isilik edukitzia. Ziurrenik banatutako txokolatiak eta gurasuen laguntziak be eukiko dau zer-ikusija!

Mediterraneoko Errefuxiatuak be isilik, edo isilarazita...

IL-Egoera latzak konta euskuezen Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeko kideak hitzaldian. Danon arduria da gaia zabaltzia, ta ia mugak zabaltzia be lortzen dogun. Baina hitzaldian azpimarratu eben moduan, arrazoietara jo bihar da. Kapitalismuaren kontra egin bihar da.

Ta Pototo ekimen guztietan parte hartzen, baina palan ezin.

IG-Gustora hartuko geunke gure Pala Txapelketan. Handik eta hamendik emon daiogun gogor pelotari, estatuaren horma gogorrak apurtu arte!

Iberdrolak raust beti boltsilora

IL-Frontoiko argija be kobra eingo deuskue ahal badabe horrek. Dana dala, Galarrenak Goiener kooperatibiaz sinatu dau aurten. Lekittoko hainbat familik be bai. Gure poltsikuetako diru apurrak nora

juatia nahi dogun, guk argi daukagu. Interesantia Eredu energetiko alternati-buen inguruan izan genduan hitzaldia.

Ta gaurko umiak kañiketara edo txapelketa-jolasten dabe?

IG-Umiak ume beti eta jolastu ahal daben guztira olgako dira ziurrenik. Konplikatuago da errefuxiatu kanpamentuetara heldu dirazen umien kasua, edo hurbilago daukagunez, aita edo ama kartzelan dauken euskal presuen seme-alabena. "Motxilaren umea" dokumentalio ikusi genduan errealitate hori. Oso gogorra.

Poto bertso eskola be koloretsu?

IL-Arpegia behintzat gorritxu ez jake egingo horrerri. Aurten be Kopla Txapelketia antolatu dabe ta ikusiko da nor dan txapelkun barrija.

Aurten ajedreza egon da, arraunik ez. Datorren urtian igual?

IG-Edo goiti-behera txapelketia kalia behera edo... Ekimen barriak pentsaten gaoz eta ez dogu ezer deskartaten. Baina diskreziñoia mantendu bihar dogu, beste-la kopija eingo deuskue ta.



ZURETIK ZERURA

Zuen eta gure zurez eta lurrez sortu ziren sutik diraugu zutik.

Zuretik burdinera uretik lurrinera goaz zubitik kolorezko su isuritik zeru urdinera.

Zauri eta gaitzak daramatzala haizeak zutabez zutabe mugituz haitzak ortzadarraren zuhaitzak.

Eta hasi bada hasi ahitzen doaz hautsak ortzimugak hautsiz irauntzaren iraultzaz hazi bagara hazi.

